



Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 28koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio, gutxienez hamabi hilabetetan zehar, beste hamabiz luzatzeko aukerarekin, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa manten diezaion berezitako bizikidetzaren unitate bati.

Aurrekariak

1. Erreklamatzailerak adierazi duenez, dibortziatu ondoren eta bere alaba bakarraren, (...)ren, zaintza esleitu ostean, bere gurasoen etxebizitzara itzuli behar izan zen, (...)ra.
2. Diru-sarrerarik ez zuenez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean (aurrerantzean BFA) eta 2011/07/19an onartu zioten atzera eraginezko ondorioekin, sei hilabetetarako, hain zuzen ere alaba adingabeak adin nagusitasuna lortzen zuen egunera arte, kasualitatez uztaila horretan bertan, beraz, esleipen aginduarekin, atzerapenak eta 2011ko uztailako hilabetea ordaindu zizkioten eta diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea agortutzat jo zen.
3. Foru Aldundiaren ustez, (...)k adin nagusitasuna lortzean, amak eta alabak amaren aldeko aitona-amonaren bizikidetzaren unitate berezitako bizikidetzaren unitatea eratzeari utzi zioten -haiekin bizi dira dibortzioaz geroztik-, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 18/2008 Legearen 9.2. artikuluan eta hura garatzen duen 147/2010 Dekretuaren 5.2. artikuluan jasotakoari jarraiki eta, beraz, prestaziorako eskubidea galdu zuten.
4. BFARI horren inguruko informazioa eskatuta eta gaiari buruz bidalitako txostena zehaztasunez irakurrita, honako gogoetak helarazi behar ditugu:

Gogoetak

1. Foru aldundi horrek bidalitako txostenean aipatzen den moduan, bizikidetzaren unitate horiek diru-sarrerak bermatzeko errentaren alorrean ezarritako arau orokorrarekiko salbuespena dira eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 18/2008 Legearen 9.2. artikuluan eta 147/2010 Dekretuaren 5.2. artikuluan jasota daude.





2. Kasu honi dagokionez, 5.2. artikuluko c) eta d) atalak interesatzen zaizkigu:

2.– Artikulu honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian aurreikusitako loturaren bat daukaten pertsonen helbidean integratzen direnean ere, bizikidetz-unitatetzat hartuko dira honako hauek:

c) Ekonomikoki beren kargura % 45etik gorako desgaitasun-kalifikazioa duten edota II. graduko 1. mailako mendetasuna edo handiagoa duten adingabeak edo pertsona helduak dituzten pertsonak (...)

d) Beren ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsonak, dela banantze edo dibortzio baten edo izatezko batasun bat desegitearen ondorioz (...)

Bi kasuetan, artikulu berak hauxe ezartzen du: bizi deneko bizikidetz-unitatetik bereizitako bizikidetz-unitate izaerari gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da.

3. Bizkaiko Foru Aldundiak egiten duen interpretazioa da erreklamatzailerak eta haren alaba adingabea c) egoeran bakarrik kokatu daitezkeela, "adingabeak beren kargura dituzten pertsonak", beraz, adingabeek adin nagusitasuna lortzen duten unean, berezitako bizikidetz-unitatea osatzeari uzten diote.

Hau da, BFAk egiten duen interpretazioaren arabera, erreklamatzailerak gurasoen etxebizitzara bakarrik eta seme-alabarik gabe itzuli izan balitz dibortzioaren ondoren, gutxienez hamabi hilabeterako eskubidea izango luke, beste hamabiz luzatzeko aukerarekin, baina 18 urte edo gehiagoko alabarekin eginez gero, ez luke prestaziorako eskubiderik izango.

4. Erakunde honek, berriz, kasu honetan interesdunarengan bi arrazoiak gertatzen direla uste du, adingabe bat bere kargura izatearena eta gurasoen etxebizitzara itzuli den pertsona dibortziatua izatearena. Hau da, kasu honetan (...)-k, erreklamatzaileraren alabak, adin nagusitasuna lortu izanak ez du garrantzirik, amak pertsona dibortziatua izanaren baldintza ere betetzen duelako, beraz, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea eskaintzeko epea gutxienez hamabi hilabetekoa izan beharko litzateke, beste hamabiz luzatzeko aukerarekin.

Izan ere, d) ataleko "bakarrik dauden pertsonak" terminoa ez da interpretatu behar "seme-alabarik gabeko pertsona" gisa, "bikotekiderik gabeko"





pertsona gisa baizik, seme-alabak bere kargura izan edo ez alde batera utzita.

5. Familia unitatearen ekonomia gaitasunaren ikuspuntutik, ez luke zentzurik izango d) atalaren arabera seme-alabarik ez duen pertsona dibortziatu edo banatu batek gurasoen etxera itzultzen denean berezitutako bizikidetzat unitatetzat jotzeko eskubidea izanez gero, eskubiderik ez izatea seme-alabak izanez gero, adingabeak izan edo ez.
6. Interpretazio horretan babesa eskaintzen du 147/2010 Dekretuaren zioen azalpenak berak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiak babes ditzakeen familia unitateen kategoriak definitzen dituenean, zera aipatzen baitu:

*Kategoria berean, **bakarrik dauden** edo ezkontzarena bezalako beste harreman batekin elkartuta dauden pertsonak daude, **beren kargura** % 45etik gorako desgaitasun-kalifikazioa duten edota autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 legean aurreikusitakoaren arabera II. Graduko 1. mailako mendetasuna edo handiagoa duten **adingabeak** edo pertsona helduak dituztenean.*

*Era berean, etxean tratu txarren biktima izanik beren seme-alabekin batera, horiek baleude, beren ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsonak, eta **banantze, dibortzio edo izatezko batasun bat** desegitearen ondorioz edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak muturrekotzat jotako egoeraren batengatik ohiko bizilekua zen etxebizitza utzi behar izan duten pertsonak.*

7. Hau da, dekretuak berak "bakarrik dauden pertsonak" terminoa erabiltzen badu "pertsona adingabeak euren kargura izatearekin" bateragarri eginez, ez dago zalantzarik "bikotekiderik gabeko pertsonei" buruz ari dela eta, ondorioz, d) atalak hizpide dugun moduko egoerak bildu behar ditu, hau da, dibortzio baten ondoren, bikotekide ohietako bat gurasoen etxera itzultzen denean, haren kargura adingabeak izan edo ez.
8. Atal horien kontrako interpretazio batek konstituzioan babestuta dauden berdintasun eta gaitasun ekonomikoaren printzipioak urratuko lituzke.
9. Azterketa horren ondorio gisa, adin nagusitasuna lortzean, erreklamatzailaren familia unitateak bereizitako unitatetzat jotzeko c) ataleko baldintzak betetzeari utziko lioke, BFAk defendatzen duen moduan, baina d) atalekoak betetzen jarraituko luke, dibortzio baten ondoren "bakarrik dauden pertsonak".





Adierazitako guztia oinarritzat hartuta eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak – erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egin da:

8/2012 IRADOKIZUNA, azaroaren 28koa, Bizkaiko Foru Aldundiari egina.

Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 18/2008 Legearen 9.2. d) artikuluan eta 147/2010 Dekretuaren 5.2. d) artikuluan xedatutakoaren babesean, (...) andreaki prestazio horretarako eskubidea onar diezaioten gutxienez hamabi hilabetetan, beste hamabi hilabetez luzatzeko aukerarekin, berezitako familia unitatearen gainontzeko baldintza ekonomikoak mantentzen badira.

